



Ebazpena, 2011ako martxoaren 9koa, Hezkuntza sailburuordearena. Honen bidez, dei egiten da 2011-2012 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuetan parte hartzeko

1. Deialdiaren xedea

2010-2011 ikasturtean Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko onartutako proiektuetan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek proiektuekin aurrera jarraitzea.

2011-2012 ikasturtean Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuak aurkeztera deitzea Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak ematen dituzten ikastetxeak eta proiektuak onesteko eta proiektu horiek egiteko erabiltzen diren diru-laguntzak emateko baldintzak eta eskakizunak zehaztea.

2. Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuarekin aurrera jarraituko duten ikastetxeak

2010-2011 ikasturteko deialdian Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko aukeratutako ikastetxeek proiektuarekin aurrera jarraitu nahi badute, eskabidea aurkeztu behar dute, VI. eranskinean atxikitako ereduari jarraituz, baina ez da beharrezkoa proiektua berriz deskriba dezaten.

Orobat, V. eranskinean atxikitako dokumentua bete behar dute ikastetxeek, proiektuan parte hartzen duten irakasleen zerrenda eguneratzeko.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako nahi adina talderekin saia dezakete ikastetxeek Hezkuntza Marko Hirueleduna.

Ikastetxeek dagokion oroitidazkiaren bi ale aurkeztu behar dituzte Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan, 2011ko ekainaren 15a baino lehen. Oroitidazkiaren ebaluazioaren ondoren, esleitutako diru-zuzkiduraren bigarren zatia hartuko dute. Oroitidazkia aurkeztearen aldetik, nahikoa da jarraipen-batzordeak ikasturte amaieran egiten duen bileraren akta aurkez dezaten. Akta horrek barnean hartu behar du saioetan parte hartzen duten irakasleen zerrenda, ikastetxeko zuzendariak sinatuta, eta finkatutako ordu-kredituen erabilera adierazi eta hartutako diru-laguntzaren erabilera justifikatu behar du, Ordezkaritza Organo Gorenaren bermearekin. Ikastetxeek on line ere aurkez dezakete oroitidazkia, proiektuak.net aplikazioaren bitartez. Dagokionean, eredu bat helaraziko zaie, ikastetxeak aukeratzeko 2010eko maiatzaren 18ko Aginduak xedatzen duenarekin bat.

3. Ikastetxe berriak: Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuaren ezaugarriak eta eskakizun espezifikoak

- a. Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan ekin behar zaio proiektua saiatzeari. Pixkanaka ezarri behar da, eta hiru ikasturte iraun behar du. Bigarren eta hirugarren ikasturteetan, hasierako taldeek ez ezik, saiakuntzan parte hartzen duten taldeen maila bereko beste talde batzuek ere parte har dezakete.
- b. Ikastetxeek nahi adina talderekin parte har dezakete Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuan. Orobat, ikasketak ziklotan banatuta ematen dituzten eta, beraz, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak elkartuta lan egiten duten ikastetxeek



ere parte har dezakete proiektuan. Hala ere, Lehen Hezkuntzako 4. mailako taldeak bakarrik hartuko dira kontuan baliabideak zehazteko eta proiektua ebaluatzeko. Betiere, proiektuan parte hartzen duten ikasleen senideek ados egon behar dute.

- c. Euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza, hizkuntza horiek ikasteko eta irakasteko ez ezik, beste jakintza-arlo batzuk ere irakasteko erabili behar dira.
- d. Lehen Hezkuntzako ikasleek 5 ordu edo saio egin behar dituzte gutxienez hizkuntza bakoitzean (euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, aldiz, 6 ordu edo saio egin behar dituzte. Ordu edo saio-kopurua zenbatzeko, hizkuntza bakoitza ikasteko eta irakasteko egiten diren orduak edo saioak ere hartu behar dira kontuan. Gutxienerako baldintza horiek betez betiere, ikastetxeek proposamen bat egin behar dute eta, proposamenaren bidez, besteak beste, zehaztu behar dute zenbat ordu ematen dituzten hiru hizkuntzetan. Kopuru hori desberdina izan daiteke ikasturte bakoitzean, eta, gutxienerako ordu-kopurua antolatzeko, curriculum osatzen duten arloetan edo arlo horiek osatzen dituzten eduki-multzoetan oinarritu daitezke ikastetxeak.
- e. Hezkuntza Marko Hirueleduna ikastetxeko atzerriko bigarren hizkuntzan saiatu nahi duten ikastetxeek hizkuntza horretan emango duten curriculuma proposa dezakete. Ebaluazio-batzordeak erabaki behar du proposamen hori Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuaren hirueletasunarekin bat datorren.
- f. Irakasleen prestasunaren eta ikastetxearen beste irizpide batzuen arabera zehaztu behar da zer ikasgai edo eduki-multzo irakasten diren hizkuntza bakoitzean, indarrean dagoen curriculumarekin bat betiere.
- g. Kontuan hartuko da atzerriko hizkuntzan ematen diren irakasgaiak ikastetxeko behin betiko irakasleek eman ditzaten, baina ez da ezinbestekoa Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuan parte hartzeko. Irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailako edo hori baino maila handiagoko titulua edo agiria izan behar dute; Lehen Hezkuntzako irakasleek, berriz, dagokion atzerriko hizkuntzaren espezialitateko titulua izan behar dute. Irakasleek ez badituzte egiaztatu hizkuntza-gaitasunak (jaiotzez badira elebidun, kasuan kasuko atzerriko hizkuntza erabiltzen den herrialdeetan luzaroan egon direlako badakite hizkuntza, etab.), Hezkuntzako sailburuordeak berriaz izendatuko duen batzorde batek txostena egin behar du irakasleen hizkuntza-gaitasunari buruz.
- h. Orobat, dagokion irakasgaia emateko beharrezko titulu guztiak izan behar dituzte irakasleek.
- i. Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuan parte hartu nahi duten ikastetxeek ez badituzte g) paragrafoan aipatutako eskakizunak betetzen dituzten irakasle nahikoak, eskatu egin ditzakete. Ikastetxe horiek aukeratzen badira proiektuan parte hartzeko, Hezkuntzako administrazioak beharrezko neurriak hartu behar ditu ikastetxeek irakasle nahikoak izan ditzaten.
- j. Irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek konpromisoa hartu behar dute esperientziak irauten duen hiru ikasturteetan parte hartzeko esperientzian eta, beren borondatez, uko egin behar diote liberazioa dakarten deialdietan parte hartzeari, Sailak esperientzia honetan parte hartzen duten irakasleak espres deitzen dituenean izan ezik.



- k. Ikasleek beren borondatez hartu behar dute parte Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuan, maila-probarik gainditu behar izan gabe, eta ez da beharrezkoa errendimendu akademikoaren araberrako taldeak osatzea. Egitasmoan parte hartzen duten ikasleen kopuruak eta ikasleok taldeetan banatzeko irizpideek inola ere ezin dute ekarri ikastetxe bateko taldeen kopurua handitzea.
- l. Proiektuaren bilakaera ebaluatze aldera, proiektuan parte hartzen duten ikasleek hizkuntzen eta hizkuntzak berak ez diren irakasgaien ebaluazioa egin behar dute, Sailak finkatutako ereduari jarraituz.
- m. Proiektuan parte hartzeko eskatzen duten ikasleen kopurua handiagoa bada ikastetxeek eskaintzen dituzten tokiena baino, Ordezkaritza Organo Gorenak proiektuan parte hartzen duten ikasleak aukeratzeko irizpideak ezarri behar ditu.
- n. Proiektuan lehenbiziko aldiz parte hartzeko eskatzen duten ikastetxeek deialdiaren eskakizun espezifikokoak betetzen dituztela justifikatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztu behar dituzte eskabidearekin (l. eranskinarekin) batera.

4. Proiektua aurrera eramateko lagungarriak

- a. Proiektuak irauten duen bitartean, talde bakarrak proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek irakasle baten lanaldi osoaren 1/3ko ordu-kreditua izango dute, eta talde birekin edo gehiagorekin parte hartzen dutenek, berriz, 1/2koa. Aurrekontuak ematen dituen aukerak kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dotazio hori handitu ahal izango du, parte hartzen duten ikastetxeek talde asko badituzte. Beren autonomiaz baliatuz, ikastetxeek proiektua koordinatzeko edo lantzeko edo proiektua osatzen duen curriculumaren materialak prestatzeko erabili behar dute kreditu hori.
- b. Proiektuan parte hartzeko aukeratutako ikastetxeek erreferentziazko aholkularia izango dute dagokien berritzegunean. Aholkulari hori proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da, proiektuaren koordinatzailearekin batera.
- c. Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleek lehentasuna izango dute Sailak prestakuntzaren alorrean antolatzen dituen jarduera jakin batzuetarako deialdietan eta, inoiz, berariaz berentzat diseinatutako jarduerak ere izango dituzte. Jarduera horiek helburu hauek izan behar dituzte bereziki: irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 eta C1 mailako tituluak edo agiriak eskura ditzaten, eta irakasleek atzerriko hizkuntza (L3 hizkuntza) irakasteko eta atzerriko hizkuntzan irakasteko metodologia egokiak ezagutzea eta erabiltzea.

Ikastaroei buruzko informazio xehea helaraziko zaie deialdian aukeratutako ikastetxeei eta proiektuarekin aurrera jarraitzen dutenei, baita ikastaroetan izen emateko prozedurei buruzkoa ere.

- d. Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek urteko 2.000 euroko diru-laguntza hartuko dute linea bakarrarekin parte hartzen badute, eta 3.000 eurokoa bi linearekin edo gehiagorekin parte hartzen badute. Materiala ordaintzeko, jarduera espezifikokoak egiteko edo proiektuan parte hartzen duten irakasleen prestakuntzaren gastuak ordaintzeko erabili behar dute zenbateko hori.



5. Diru-zuzkidurak ordaintzea

Ikastetxeek bi epetan hartuko dute diru-zuzkidura: lehenengo epean, deialdia ebatzi ondoren, esleitutako zenbateko osoaren % 80 hartuko dute, eta bigarreanean, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan dagokion oroitidazkiaren bi ale aurkeztu eta oroitidazkiaren ebaluazioa egin ondoren —2012ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu behar dute oroitidazkia—, gainerakoa. Ebazpen honetako 6.b) paragrafoak xedatzen duenarekin bat, oroitidazkia aurkeztearen aldetik, nahikoa da ikastetxeek jarraipen-batzordeak ikasturte amaieran egiten duen bileraren akta aurkez dezaten. Akta horrek barnean hartu behar du saioetan parte hartzen duten irakasleen zerrenda, ikastetxeko zuzendariak sinatuta, eta finkatutako ordu-kredituen erabilera adierazi eta hartutako diru-laguntzaren erabilera justifikatu behar du, Ordezkaritza Organo Gorenaren bermearekin. Ikastetxeek on line ere aurkez dezakete oroitidazkia, proiektuak.net aplikazioaren bitartez. Dagokionean, eredu bat helaraziko zaie.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza arduratuko da deialdi honetan aurreikusitako diru-zuzkidurak kudeatzeaz.

6. Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeak

20 ikastetxek gehiagok hartuko dute parte Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuetan, baina kopuru hori handitu egin daiteke, aurkezten diren eskabideen kopuruaren, eskabideen kalitatearen eta aurrekontuaren arabera. Kopuru hori handitu daiteke deialdia erabaki aurretik, baina horretarako diru nahikoa geratu behar da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programek ez dituztelako aurrekontu-sailak agortu. Hori gertatuz gero, horren berri emango da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez.

7. Proiektuan parte hartzeko aukeratutako ikastetxeen betebeharrak espezifikak

- a. Emandako diru-laguntza onartzea. Proiektuan parte hartzeko aukeratutako ikastetxeek berriaz eta idatziz uko egin behar diote diru-laguntzari, eta hamabost eguneko epea dute horretarako, deialdiaren ebazpena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrialdean argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, diru-laguntza onartzen dutela joko da.
- b. Diru-zuzkidura zertarako ematen den, horretarako erabiltzea.
- c. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proiektuaren inguruan finkatzen dituen ebaluazioetan parte hartzea.
- d. Prestakuntzaren alorrean planteatzen diren jardueretan parte hartzea.

8. Proiektua abian jartzea

- a. Ikastetxeko zuzendaritzak jarriko du proiektua martxan; eta ikasketaburutzak proiektuan jasotako jarduerak koordinatu beharko ditu. Ikasketaburuak beteko du funtzio hori edo, bestela ere, irakasleren baten esku utzi. Hala bada, irakasle horrek proiektuaren garapenaren berri eman beharko dio ikasketaburuari aldian-aldian, eta zuzendaritza-taldeko bileretara joan ahal izango da, betiere proiektuarekin lotura duten gaiak aztertzen direnean. Hortaz, irakasle hori edo ikasketaburuak proiektuko koordinatzailea izango dira.
- b. Dena dela, ikastetxeak antolatzeko autonomia duenez, koordinatzaileen irakaste-ordutegiak (eskola-orduen kopurua eta eskola-orduen banaketa) proiektuetako lanera egoki ditzakete, betiere kasuan kasuko irakaskuntzako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.



- c. Ikasketa horiek egiten dituzten ikasleen espedientean ikasketen xehetasunak jasoko dira.

9. Jarraipena eta ebaluazioa

- a. Proiektuaren jarraipena egiteko batzorde bat eratu behar da proiektuan parte hartzeko aukeratutako ikastetxe bakoitzean, eta hauek osatu behar dute batzordea: ikastetxeko erreferentziatzko ikuskariak; batzordeburu jardun behar baitu; ikastetxeko zuzendariak edo hark ordezkari izendatzen duenak; proiektuaren koordinatzaileak; eta Berritzeguneko aholkulari batek.
- b. Batzordeak ikasturtean bi aldiz bildu behar du gutxienez, proiektuaren martxa aztertzeko eta, egoera azertu ondotik, aldaketak eta hobekuntzak proposatzeko. Jarraipen-batzordeak ikasturte amaieran egiten duen bileraren akta proiektuaren urteko oroitidazkitzat hartu behar da.

10. Proiektuaren amaierako ebaluazioa eta egiaztagiriak

- a. Proiektuaren emaitzak ebaluatze eta Hezkuntza Marko Hirueleduna orokortzeko aukerak aztertze aldera, proiektuan parte hartzen duten ikasleek ebaluazioa egin behar dute amaieran, ISEIk horretarako prestatutako ereduari jarraituz. Horri esker, ikasleen hizkuntza-gaitasuna neurtzen da, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailak edo azpimailak hartuta erreferente. Ebaluazioaz gain, proiektuan parte hartzen duten gurasoek, irakasleek eta ikastetxeek zenbait galdetegi bete behar dituzte.
- b. Hezkuntza Marko Hirueleduneko saiakuntza-proiektuan parte hartu duten irakasleei egiaztagiriak egingo zaizkie, parte-hartzaileen zerrenda jaso ondoren.

11. Eskaerak egitea eta aurkeztea

Hezkuntza-erkidegoko sektoreei dagokion informazioa helarazi ondoren, ikastetxe bakoitzeko ordezkari-organok erabaki behar du ikastetxeak proiektuan parte hartzen duen. Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektu berrietan parte hartzeko eskatzen duten ikastetxeek eskabidea (I. eranskina) bete behar dute. Ondoren, zuzendariak eskabidea zigilatu eta sinatu behar du, eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari helarazi behar dio, dokumentu hauek erantsita:

- a) Proiektuaren deskripzioa, II. eranskinen ereduari jarraituz.
- b) Irakasleen klaustroaren akta. Berriaz, zera adierazi behar du aktak: irakasleek badutela Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuaren eta hura osatzen duten jarduera guztien berri eta beren gain hartzen dituztela jarduera horiek ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzaketan ondorioak (III. eranskina).
- c) Ordezkaritza Organo Gorenaren akta. Zera adierazi behar du aktak: Ordezkaritza Organo Gorenak baduela Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko aurkeztutako proiektuaren berri, onartu egin duela eta konpromisoa hartu duela, ikastetxea aukeratzeko badute, hura gauzatzeko eta ikastetxearen urteko planean sartzeko beharrezko neurriak hartzeko (IV. eranskina).
- d) Parte-hartzaileen zerrenda, V. eranskinari jarraituz.



Eskabideak on line bete behar dira, <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/> helbidean dagoen formulario elektronikoa erabiliz. Eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen artean, nahi adina aldiz bete eta alda daiteke formulario hori. Epe hori amaitzen denean, ordea, aplikazioa automatikoki itxiko da, eta eskabidea ezingo da aldatu inola ere ez. Aplikazioa itxi aurretik, betetako dokumentu guztiak inprimatu behar dira, baita sinatu eta zigilatu ere, eta bi ale aurkeztu behar dira Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan edo, bestela, Zuzenean zerbitzuan (Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakian, 48011 posta-kodean; Donostia-San Sebastiango Andiako 13. zenbakian, 20003 posta-kodean, edo Vitoria-Gasteizko Ramiro de Maeztuko 10. zenbakiko beheko solairuan, 01008 posta-kodean) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua adierazitako tokietako edozeinetan.

Eskabideak aurkezteko epea 2011ako apirilaren 15ean amaituko da. Egun horren aurretik inprimatuta aurkezten ez diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, nahiz eta on line egon.

12. Eskabideak ebaluatzeko batzordea eta eskabideen aukeraketa.

Ebaluazio-batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko, ebaluatzeko eta aukeratzeko. Batzorde honek deialdi honetako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta 13. atalean azaltzen den baremoaren arabera saiakuntza proiektuak hautatuko dira. Hauek osatuko dute batzorde hori:

- a) Hezkuntzako sailburuordeak edo hark ordezkariz izendatzen duenak. Berak jardungo du batzordeburu.
- b) Hezkuntza berriztatzeko zuzendariak edo hark ordezkariz izendatzen duenak.
- c) Pedagogia Berriztapeneko Zerbitzuko eta Irakasletoa Hobetzeko Zerbitzuko buruek. Horietako batek batzordeko idazkari jardungo du.
- d) Hezkuntza berriztatzeko zuzendariak laguntza-zerbitzuetako teknikarien eta langileen artean edo hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan aditu direnen artean aukeratzeko dituen hiru lagunek.

13. Hezkuntza Marko Hirueleduneko saiakuntza-proiektuetan parte hartzeko eskabideak balioztatzeko baremoa

(Beharrezko irizten badio, ebaluazio-batzordeak elkarrizketa batera dei ditzake eskabidea aurkezten duten ikastetxeak)

1. Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuko ebaluazio-batzordearen balorazioa: 30 puntu gehienez ere.

30 puntu horiek banatzeko, ebaluazio-batzordeak hauek hartu behar ditu kontuan:

- Proiektuaren koherentzia pedagogikoa eta proiektua osatzen duen curriculumaren koherentzia: 10 puntu gehienez ere.
- Hizkuntza bakoitzean ematen diren irakasgaiak edo eduki-multzoak aukeratzeko irizpideen egokitasuna: 5 puntu gehienez ere.
- Alderdi metodologikoen eta didaktikoen kalitatea: 10 puntu gehienez ere.
- Irakasleen egokitasuna: 5 puntu gehienez ere.

2. Beste eleaniztasun-proiektu batzuetan edo Europako beste proiektu batzuetan esperientzia izatea: 10 puntu gehienez ere

- Ikastetxe publikoetako eleaniztasun-proiektuetan (INEBI eta BHINEBI proiektuetan eta eleaniztasun-esperientzietan) esperientzia izatea: 1 puntu ikasturteko eta 7 puntu gehienez ere.



- Ikastetxe publikoetako Europako proiektuetan (Comenius eta eTwinning proiektuetan eta abarretan) eta Hezkuntza Sailak eleaniztasun-gaiak berritzeko antolatutako ekintzetan esperientzia izatea: 1 puntu ikasturteko eta 3 puntu gehienez ere.
3. Beste berrikuntza-proiektu batzuetan parte hartu izana: 5 puntu gehienez ere
- Ikastetxe publikoek hizkuntzekin zerikusia duten proiektuetan (hala nola Ulibarri programan, hizkuntzen tratamendu bateratuan eta beste proiektu batzuetan) parte hartu izana: 0,5 puntu ikasturteko eta 3 puntu gehienez ere.
- Beste prestakuntza- edo berrikuntza-proiektu batzuetan parte hartu izana: 0,25 puntu ikasturteko eta 2 puntu gehienez ere.
4. Egoera sozial txarrean dauden ikasleak hartzea: 5 puntu gehienez ere
- Ikasleen % 40 baino gehiago bekaduna izatea: 5 puntu.
 - Ikasleen % 20 eta % 40 artean bekaduna izatea: 3 puntu.
 - Ikasleen % 10 eta % 20 artean bekaduna izatea: 1,5 puntu.
- Baremoaren 2. eta 3. puntuek aipatzen dituzten proiektuetan parte hartu izana kontuan hartzeko, 2004-2005 ikasturtean edo ondoko ikasturteren batean parte hartutakoak izan behar dute ikastetxeek.

14. Ebazpena eta ez betetzea.

- a. Ebaluazio-batzordeak proposatuta, Hezkuntza sailburuordeak ebatziko du deialdi honetan araupetutako deialdia. Deialdi horren ebazpena interesatuei jakinarazteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Webgunean argitaratuko da. Argitarapen ondoren epe bat irekiko da erreklamazioak egiteko edota akatsak konpontzeko.
- b. Diru-laguntza emateko bete behar ziren baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, lurralde-ordezkaritzari itzuli beharko zaio jasotako zuzkidura –ikastetxeari etorkizunean egokitu dakizkiokeen aurrerakinetatik ere ken dakioket– baldin eta egoera hauetakoren bat suertatzen bada:
 - Proiektua diseinatzean aurreikusi zen gutxieneko betetze-maila betetzen ez bada.
 - Deialdi honetan xedatutakoa nola edo hala betetzen ez bada.



I. ERANSKINA (ikastetxe berriak)

HEZKUNTZA-MARKO HIRUELEDUNA SAIATZEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

.....jaunak/andreak,
 zenbakiko NAduak,(e)ko
 (..... zenbakiko posta-barrutiko kaleko/plazako)
telefono-zenbakidun, fax-zenbakidun
 eta..... helbide elektronikodun
ikastetxeko zuzendari/titular den aldetik,

ZERA AZALDU DU:

Badakiela zein diren Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuetan parte hartzeko deialdiaren baldintzak.

- 2011/2012 ikasturterako proiektu berria
- Proiektuaren deskripzioa (II. eranskina)
- Irakasleen klaustroaren akta (III. eranskina)
- Ordezkaritza Organo Gorenaren akta (IV. eranskina)
- 2011/2012 ikasturteko parte-hartzaileen zerrenda eta uko-agiria (V. eranskina)

Oinarrizko ezaugarriak:

Ikasturtea	Etapia	Maila	Talde-Kop.	Ingeleseko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.	Gaztelaniazko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.	Euskarazko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.
2011/2012									

.....(e)n, 2011koaren(e)an

(sinadura eta
zigilua)

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duen beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan erabili ahal izango dira. Horretarako, Donostia kaleko 1. zenbakira (Vitoria-Gasteiz; PK: 01010) jo beharko da. Era berean, deialdi honetara biltzen diren lagunak baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazio batzuei emateko, deialdiaren xedearrekin bat datozen helburuetarako. Era berean, baimena ematen diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan egiaztatu dezan aurkeztutako dokumentuek diotena.



II. ERANSKINA (ikastetxe berriak)

PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuaren planteamendu pedagogikoa eta proiektua osatzen duen curriculumaren planteamendua

Eskolako testuingurua eta proiektuaren ezaugarriak, proiektuaren helburuak, proiektuaren eta curriculumeko oinarrizko gaitasunen bateratzea, ikastetxeko beste proiektu batzuekiko harremana, proiektuan parte hartzen duten mintegien eta irakasleen arteko koordinazioa, irakasleak prestatzeko jardueretan parte hartzea, familiei proiektuaren martxaren berri ematea...

Proiektuaren barneko hizkuntzetan ematen diren irakasgaiak edo eduki-multzoak aukeratzeko irizpideak

Hizkuntza-gaitasunak eta aukeratutako irakasgaien edukiak.

Alderdi metodologikoak eta didaktikoak

Hizkuntzen eta irakasgaien planteamendu didaktikoa, ikuspegi metodologikoaren aukeraketa, ebaluazioa egiteko estrategiak, gelaren kudeaketa, curriculumeko jarduerak, baliabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera, ikasleak taldeetan banatzea...

Proiektuan parte hartzen duten irakasleen ezaugarriak

Tituluak eta aukeratutako irakasgaien irakaskuntzan duten esperientzia, hizkuntzen irakaskuntzan duten esperientzia, antzeko beste proiektu batzuetan duten esperientzia...



III. ERANSKINA (ikastetxe berriak)

.....(e)ko irakasleen klaustroak, 2011ko
.....aren(e)ane(t)an egindako osoko bilkuran, ikastetxeen
funtzionamenduaren legezko baldintzak betez eta Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko
proiektuetan parte hartzeko egindako deialdiaren (2011ko martxoaren 7ko Ebazpenaren)
eskakizunetan oinarrituz, adierazi du baduela aurkeztutako proiektuaren berri, eta bere gain
hartu ditu proiektuak irakasleen artean eta ikastetxearen barne-antolamenduan izan
ditzakeen ondorioak.

.....(e)n, 2011koaren(e)an

ZUZENDARIA

(sinadura eta zigilua)



IV. ERANSKINA (ikastetxe berriak)

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN AKTA

..... ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, 2011ko
aren(e)ane(t)an egindako osoko bilkuran,

 bertan zirela gurasoen jaun-andreak izenean,

 bertan zirela irakasleen jaun-andreak izenean,

 bertan zirela ikasleen jaun-andreak izenean,

 jaun-andreak bertan zirela irakasleen izenean,
 zuzendari
 jauna/andrea buru zela, ikasleen gurasoei jakinarazi ondoren zer mailatan proposatzen
 duen Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzea, Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko
 proiektuetan parte hartzeko deialdiaren (2011ko martxoaren 7ko Ebazpenaren) eskakizunak
 betez, aurkeztutako proiektua onartu du, eta konpromisoa hartu du, ikastetxea aukeratzen
 badute, hura gauzatzeko eta ikastetxearen urteko planean sartzeko beharrezko neurriak
 hartzeko. Gainera,
 jauna/andrea
 izendatu du koordinatzaile, ordezkatzeko duen klaustroko irakaslea baita.

.....(e)n, 2011koaren(e)an

ORDEZKARITZA-ORGANO GORENEKO BURUA,

(sinadura eta zigilua)



VI. ERANSKINA (proiektuan jarraitzen duten ikastetxeak)

HEZKUNTZA-MARKO HIRUELEDUNA SAIAZKEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

.....jaunak/andreak,
zenbakiko NAdunak,(e)ko
 (..... zenbakiko posta-barrutiko kaleko/plazako)
 telefono-zenbakidun,
 fax-zenbakidun eta helbide
 elektronikodunikastetxeko
 zuzendari/titular den aldetik,

ZERA AZALDU DU:

Badakiela zein diren Hezkuntza Marko Hirueleduna saiatzeko proiektuetan parte hartzeko deialdiaren baldintzak.

ETA ZERA ESKATU DU:

- 2010-2011 ikasturtean onartutako proiektuarekin aurrera jarraitzea
 Deialdiaren eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko jatorrizko dokumentuak
 eta haien kopia erantsi ditu.
- 2011-2012 ikasturteko parte-hartzaileen zerrenda eta uko-agiria (V. eranskina)

Aurrera jarraitzen duen proiektuaren oinarriko ezaugarriak:

Ikasturtea	Etapia	Maila	Talde-Kop.	Ingeleseko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.	Gaztelaniazko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.	Euskarazko Irakasgaiak (Orduak)	Parte Hartzen Duten Irakasleen Kop.
2011/2012									
2011/2010									

.....(e)n, 2011koaren(e)an

(sinadura eta
 zigilua)

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duen beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztzen diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan erabili ahal izango dira. Horretarako, Donostia kaleko 1. zenbakira (Vitoria-Gasteiz; PK: 01010) jo beharko da. Era berean, deialdi honetara biltzen diren lagunak baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazio batzuei emateko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako. Era berean, baimena ematen diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan egiaztatutako dezan aurkeztutako dokumentuek diotena.